

ORGANIKOA BIRZIKLATU

Leioako Udalak **bosgarren edukiontzia** edo edukiontzi marroia jarriko du. Oraindik aurrera, gordinik edo kozinaturik dauden etxeko hondakin organikoak birziklatu ahal izango dituzue.

Bat egin gure misioarekin eta materia organikoa edukiontzi marroian birziklatu. Zure laguntzari esker, Leioa ingurumenarekin konprometitutako udalerria izatea lortuko dugu.



HAU BOTA DAITEKIE

Fruta, berdura, lekale, eta barazkien hondakinak, gordinik edo kozinatuta.

Fruta hezurak, azalak eta fruitu lehorrak, haziak eta laboreak.

Ogia, gailetak eta opilak.

Beste hondakin biodegradagarri batzuk: sukalde papera, paperezko mahai-zapiak, komuneko paperaren biribilkiak, kafe hondarrak, infusio poltsatxoak eta botilen kortxoak.

Lore eta landare soberakinak ere bota daitezke, hosto lehorrak, belarra, baita inausketa eta baratzeetako hondakin txikiak ere.

HELBURUA

Gaur egun, zakar poltsaren %40 materia organikoa da. Hondakin horiek baliabide ikaragarria dira, materia organikoa bereizita batzeari esker, konposta egiten delako. Konpost horrek lorezaintza eta nekazaritzarako balio du gero.

Helburua da, gutxienez, etxebizitzaren %30ek bereiztea materia organikoa.



HAU IEZ BOTA

Olioak eta esnekiak.

Erabilera bakarreko pixoihalak eta erabilitako mukizapiak.

Gizaki edo animalien gorotzak.

Inprimatutako edo plastifikatutako papera.

Harriak, kristalak, metala edo plastikoa.

Orban-kentzekoak edo produktu kimikoak.

Inausketako hondakin handiak.

KIT ORGANIKOA DOAN

Zerbitzuarekin bat egiten duten etxebizitza bakoitzari **materia organikoa banatzeko kita emango diogu, dohainik**. Kit organikoak zakarrontzi aireztatua dauka, etxean hondakinak batzeko; 150 poltsa biodegradagarri; zer birzikla daitekeen jakiteko imana; eta edukiontzi marroia irekitzeko bi giltza elektronikoa.

Ezin da plastikozko poltsarik erabili, bakarrik poltsa biodegradagarriak, kitean datozenak bezalakoak. Denda eta merkataritza gune handietan eros ditzakezu poltsa horiek.

Edukiontzi marroia erabiltzeko txartela duen kita eskatu.



EDUKIONTZI MARROIA

Zure poltsa biodegradagarria hondakinez beteta daukazunean, edukiontzi marroian sartu ahal izango duzu. Horretarako, edukiontzia irekitzeko, **giltza elektronikoa bat** edukiko duzu. Txartel hori ekimen honetan inskribatutakoei bakarrik emango zaie, batutako materiarekin kalitatezko konposta lortzen dela bermatzeko.

BILKETA ETA GARRAIOA

Bilketa berezituko hondakin organikoak **Bizkaiko Konpostegia ARTIGAS**era eramaten dira, eta bertan, konpostaje izeneko prozesuaren bitartez, **kalitate handiko konposta** lortzen da. Konpost hori, honezkero, erabili egiten da nekazaritzan, lorezaintzan eta obra zibilean ongargi gisa.

ABANTAILAK

Aurreztu egiten da hondakin guztiak aprobetxatzen direlako, eta horrela, **Leioa jasangarriago** egitea lortzen dugu.

Konposta Leioako mendi, parke eta gune berdeetan erabiliko dugu.



INFORMAZIORAKO TELEFONOA

900 720 631

Edukiontzi marroiari buruzko zalantza guztiak argitzeko.

INFORMAZIO KARPAK

Informazio karpa gorri batzuk jarriko ditugu, eta han, doaneko kitak hartu ahal izango dituzue. Horrez gain, **kanpainari buruzko informazio xehatua** emango dugu, eta nahi izanez gero, **ekarpenak eta proposamenak egin ahal izango dituzue**, bosgarren edukiontzia instalazioa eta erabileraren eraginkortasuna hobetzeko.

SAKONETA apirilak 7

UDONDO apirilak 8

TXORIERRI apirilak 9

LAMIAKO apirilak 10

BASAEZ apirilak 13

11:00-14:00 eta 16:30-19:00

KITA HARTZEKO LIEKUAK

Doaneko kita hartzeko beste toki batzuk:

LEIOAKO UDALETXEA
Elexalde 1

UDAL BULEGO TEKNIKOA
Errekalde plaza 1

PINUETAKO UDAL BULEGOA
Langileria 202

INFORMAZIO BULEGOA
Independentzia 10-behea

BAT EGIN GURE MISIOAREKIN

MATERIA ORGANIKOA EDUKIONTZI MARROIAN BIRZIKLATU

